Leitzako Udala

Joaquín Lizarraga Sanz (1, guztira 1)
Idazkaria
Sinaduraren data: 18/09/2026
HASH: a94:c9671510:6ca2d52d3e2d925acb109

LEITZAKO UDAL LIBURUTEGI BERRIAREN I. FASEKO ERAIKUNTZA-OBREN KONTRATUA ARAUTZEN DUEN BALDINTZA-AGIRIA.

KONTRATUAREN XEDEA	LEITZAKO UDAL LIBURUTEGI BERRIAREN I. FASEKO ERAIKUNTZA-OBRAK
LIZITAZIO-AURREKONTUA	289.342,76€ (BEZ kanpo)
KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA	318.277,03 € (BEZ kanpo)
GAUZATZE-EPEA	[8 ilabete]
BERMEALDIA	[3 urte], obrak jasotzen direnetik kontatzen hasita, edo, hala badagokio, esleipendunak eskainitako epe luzeagoa
PROZEDURA	Publizitaterik gabeko prozedura irekia
IZAPIDETZEA	Arrunta
KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA	Baldintza-agiriaren 7.a klausula
KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA	Baldintza-agiriaren 7.b klausula
BEHIN-BEHINEKO BERMEA	Ez
BEHIN BETIKO BERMEA	Esleipen-prezioaren % 4
PREZIOEN BERRIKUSPENA	Ez da onartzen
LOTEEN DISEINUA	Ez
ALDAEREN ONARPENA	Ez
ESLEIPEN-IRIZPIDEAK	Baldintza-agiriaren 9. klausula
ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA	Nafarroako Lizitazio Elektronikorako Plataformaren (PLENA) bidez aurkeztuko dira
ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA	Iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu eta hurrengo 15 egun naturalak
HARREMANETARAKO	idazkaria@leitza.eus

AURKIBIDEA

1. XEDEA

2. PROZEDURA, ESLEIPEN-MODUA ETA PUBLIZITATEA

3. LIZITAZIO-AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

4. GAUZATZE-EPEA

5. KONTRATAZIO-ORGANOA, KONTRATUAREN KUDEAKETA-UNITATEA ETA KONTRATAZIO MAHAIA

Balozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orialdea, guztira 44

Irailaren 18ko Leitzako udaleko alkatearen 348/2026 ebazpenaren bitartez onartuta

6. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

7. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMEN-ESKAKIZUNAK

8. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

9. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

10. ESKAINTZA ANORMALKI BAXUAK

11. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA

12. ESLEIPENAREN AURREKO DOKUMENTAZIOA

13. ESLEIPENA

14. FORMALIZAZIOAREN AURREKO DOKUMENTAZIOA

15. FORMALIZAZIOA

16. KONTRATUAREN GAUZATZEA

17. PREZIO KONTRAJARRIAK

18. KONTRATUAREN ALDAKETAK

19. AZPIKONTRATAZIOA ETA KONTRATUAREN LAGAPENA

20. KONTRATUAREN AZKENTZEA

21. BERMEALDIA ETA ERAIKUNTZAREN ONDOKO ZERBITZUA

22. ERREGIMEN JURIDIKOA

23. ERREKURTSOAK ETA ERREKLAMAZIOAK

24. DATUEN BABESA

25. KONFIDENTZIALTASUNA

1.-LIZITAZIOAREN XEDEA.

Baldintza-agiri honen xedea da Leitzan kokatutako **"LEITZAKO UDAL LIBURUTEGI BERRIAREN I. FASEKO ERAIKUNTZA"** proiektuan jasotako obrak gauzatzeko kontratazioa arautuko duten alderdi juridiko, administratibo, ekonomiko eta teknikoetan alderdien eskubide eta betebeharrak zehazteko itunak eta baldintzak ezartzea.

Aipatutako proiektua **Álvaro Sesma Tellería** arkitektoak idatzi du (COAVN elkargokide zk. 5126, CSCAE 75476.5), EOSOL ENGINEERING CONSULTING S.L. enpresakoa.

Balliozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orialdea, guztira 44

Leitzako Udala

Proiektua idatzi duten pertsona berberak arduratuko dira, halaber, Obraren Zuzendaritza-lanez.

Kontratuaren izaera 2/2018 Foru Legearen 28. artikuluan aurreikusitakoa izanen da, “obra-kontratu” gisa.

Apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen, Kontratu Publikoei buruzkoaren, I. eranskinaren araberako CPV kodea 45212330-8 da – Liburutegien eraikuntza-lanak.

Kontratu hau lote bakar batean esleituko da.

2.-ESLEIPEN-PROZEDURA.

Kontratu hau Europar Batasuneko atalasetik beherako prozedura irekiaren bidez esleituko da, publizitate komunitariorik gabe, 2/2018 Foru Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta esleipena kalitate-prezio erlazio hoberena duen proposamena egiten duen lizitatzaileari egokituko zaio, baldintza-agiri honetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera, Leitzako Udalak kontratua hutsik uzteko duen eskubidearen kalterik gabe.

Kontratazioa Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko den iragarki bidez eta PLENA plataforman lizitazio elektronikoaren bidez jakinaraziko da.

3.-KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIO-AURREKONTUA.

Kontratuaren balio zenbatetsia 289.342,76€ (BEZ kanpo)

Aurrekontu hori gainditzen duten eskaintza ekonomikoak baztertu eginen dira.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 318.277,03 € (BEZ kanpo)., eta lizitazio-aurrekontua % 10ean handitzetik dator, proiektuan aurreikusitakoen aldean benetan gauzatutako unitate-kopurua alda daitekeelako, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 144. artikuluan aurreikusitako ahalmena erabiliz.

Leitzako Udalaren 2026rako aurrekontuan, obra honetarako bideratutako gastu-partida bat dago: “33210 - 622001-”Inbertsioa liburutegia”.

4.-GAUZATZE-EPEA.

Gehienezko gauzatze-epea [8 hilabete] da, obraren zuinketa-egiaztapenaren akta sinatzen denetik kontatzen hasita, edo, esleipendunak eskaintzan adierazitakoa txikiagoa bada, hori. Ez da onartuko epe hori gainditzen duen eskaintzarik.

Hasi aurretik, obrak benetan has daitezen beharrezkoak diren lanak egin beharko ditu Kontratistak (Segurtasun eta Osasun Planaren formalizazioa, Lantokia irekitzea, Zuinketaren egiaztapena, segurtasun- eta lan-baliabideak ezartzea, etab.).

Kontratistak obrak hasten ez baditu, aldizkako epeak betetzen ez baditu edo lanak ezarritako epeetan bukatzen ez baditu, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 147. artikuluak ezarritako zehapenak jarriko zaizkio, Udalari

Baliozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orialdea, guztira 44

egin beharreko kalte-ordaina baztertu gabe; azken hori 2/2018 Foru Legearen 148. artikuluaren arabera zehaztu beharko da.

Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen bada eta hori bere konpromisoak betetzeko prest agertzen bada, galdutako denboraren baliokidea den luzapena emanen zaio, kontratistak epe txikiagoa eskatzen ez badu behintzat.

5.-KONTRATAZIO-ORGANOA, KUDEAKETA-UNITATEA ETA KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio-organoa Leitzako Udalaren osoko bilkura da. Kontratuaren kudeaketa-unitatea Idazkaritza da.

Kontratazio Mahaiak esku hartuko du eta KPFLren 50. eta 51. artikuluek ematen dizkioten eginkizunak izanen ditu; deialdiari, bilkurei, quorumari, kideen eginkizunei, aktei, abstentzioari eta errekusazioari dagokienez, urriaren 1eko 40/2015 Legeari, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoari, jarraituko dio.

Aurrekoaren arabera, edozein proposamen egin aurretik, kontratuen xedearekin lotutako eta beharrezkotzat jotzen dituen adina txosten eska ditzake.

Kontratazio Mahaia honako pertsona hauek osatuko dute:

-Lehendakaria: David Anaut Peña, Leitzako Udaleko alkatea, edo ordezten duen zinegotzia.

-1. Batzordekidea: Maider Amantegi Urdalleta, Leitzako Udaleko zinegotzia, edo ordezten duen zinegotzia.

-2. Batzordekidea: Igor López de Uralde, udal arkitektoa.

-3. Batzordekidea: Itziar Arzimendi Arrieta, udal arkitekto teknikoa.

-Batzordekide-Idazkaria: Jokin Lizarraga Sanz, udal idazkaria, edo ordezten duen pertsona.

Kontratazio Mahaikideek prozedura administratiboa arautzen duen legerian ezarritako abstentzio- edo errekusazio-arrazoiak dituzte, eta esku hartzen duten lehen jardunean berariaz adieraziko dute ez dagoela interes finantzario, ekonomiko edo pertsonalik euren inpartzialtasuna eta independentzia kontratazio-prozeduraren esparruan arriskuan jar dezakeenik.

6. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

6.1. Alderdi orokorrak

Lizitatzaile bakoitzak ezin izanen du eskaintza bat baino gehiago aurkeztu. Halaber, ezin izanen du beste lizitatzaile batzuekin batera eskaintza bat sinatu banaka aurkeztu badu, ezta batasun horietako bat baino gehiagotan agertu ere. Hau urratzeak, baita enpresa lotuek aldi berean eskaintzak aurkezteak ere, sinatutako eskaintza guztiak ez onartzea ekarriko du.

Balozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orialdea, guztira 44

Proposamenak aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak kontratua arautzen duten baldintza-agirietan aurreikusitako klausula edo baldintza guztien edukia baldintzarik gabe onartzea, ezein salbuespenik gabe, baita aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta kontratazio horretarako eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela dioen erantzukizunpeko adierazpena ere.

Interesdunek kontratuaren edukiari buruzko argipenak eska ditzakete, egoki iritzitakoak, eta hiru eguneko epean erantzungo zaie, eskaintzak aurkezteko azken egunaren aurreko 6 egun natural baino lehen, betiere azken egunaren aurreko 9 egun natural baino lehen eskatu badira. Eskaerak eta erantzunak hurrengo atalean aurreikusitakoaren arabera eginen dira.

6.2. Aurkezteko lekua eta epea

Eskaintza osatzen duten dokumentuak Nafarroako Lizitazio Elektronikorako Plataformaren (PLENA) bidez soilik aurkeztu beharko dira; plataforma hori Nafarroako Kontratazio Atariko lizitazio-iragarkian eskuragarri egonen da (www.contrataciones.navarra.es), hurrengo paragrafoetan ezarritakoaren arabera.

Halaber, interesdunekiko komunikazio eta izapide guztiak PLENAren bidez eginen dira.

Eskaintzak aurkezteko epea **hamabost egun naturalekoa (15 egun)** izanen da, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Enpresa lizitatzaileak bere eskaintza ixten duen unean, haren edukiaren aztarna -laburpen kriptografikoa- sortuko da, eskaintzaren froga gisa gelditukо dena. Lizitatzaileak PLENAn bere eskaintza aurkeztean arazoak* baditu, eta aztarna -laburpen kriptografikoa- eskaintzak aurkezteko epearen barruan kontratazio-organoari helarazten bazaio, Kontratazio Atarian ezarritako harremanetarako helbide elektronikora, eskaintza osoa PLENAren bidez jasotzeko eta aurkezpena osotzat emateko 24 orduko epe luzatua izanen da. Baldintza horiek bete ezean, ez da onartuko parte hartzeko eskaera, lizitazio-iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen bada.

> *ondorio horietarako ohartarazten da eskaintzek zenbat eta pisu handiagoa izan (MBtan neurtuta), orduan eta denbora gehiago behar izan daitekeela aurkezpena osatzeko. Hori gorabehera guztiekiko independentea da, hala nola datuak igotzeko abiadura txikiagoa, konexioaren kalitatearengatik, edo bestelakoak.*

Beharrezkoa da aurkezpena egiteko erabiliko den ekipoaren ordua eta Nafarroako Gobernuaren zerbitzariaren ordua gehienez 5 minutuko desfasearekin bat etortzea.

Nafarroako Gobernuaren zerbitzariek Denbora Unibertsal Koordinatua (UTC) hartzen dute erreferentziatzat; hori nazioarteko erreferentzia-laborategiek mantentzen duten denbora-eskala unibertsala da, +/- 1 segundoko zehaztasunarekin. Beraz, hori da zerbitzu elektronikoen ordu ofiziala.

Baliozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orialdea, guztira 44

- Ordu-iturri nagusia: hora.roa.es (Real Instituto y Observatorio de la Armada: bi zerbitzari San Fernando-Cadizen eta hirugarren bat Madrilen)
- Bigarren mailako ordu-iturriak:

·Canon.inria.fr, INRIA, Paris

·i2t15.i2t.ehu.es, UPV-EHU

Zorroak irekitzean, jasotako aztarna baten gainean epetik kanpoko aurkezpen bat antzematen bada, aztarna hori balioztatuko da; aztarna bat badator eta jasotze-data luzatutako 24 orduen barruan badago, eskaintza baliozkotzat emanen da eta irekiko da.

Aztarna bat ez badator, edo eskaintza luzatutako 24 orduetatik kanpo jaso bada, eskaintza baztertu eginen da, eta ez da inoiz haren edukia irekiko.

Eskaintza epetik kanpo aurkeztu bada eta enpresa edo erakunde lizitatzaileak arazo teknikoak izan zirela adierazten badu, egiaztatuko da eskaintza aurkeztu zen unean Plataforman arazo teknikorik izan zen ala ez. Plataformaren funtzionamendu normalean gorabehera teknikorik izan bada bakarrik onartuko da aurkeztutako eskaintza. Lizitatzailearen ezjakintasunak edo Plataformari ez dagozkion arazo teknikoek ez dute justifikatuko eskaintzaren aurkezpen berantiarra, eta baztertzea ekarriko dute.

Interesdunek baldintza-agiriei eta bestelako dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eska dezakete, eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino gutxienez 6 egun natural lehenago.

Erantzunak zuzenean bidaliko zaizkio interesdunari, eta interesekotzat jotzen badira, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko dira, gehienez ere 5 eguneko epean.

Lizitatzaileek adierazi beharko dute, hala badagokio, zein dokumentu edo horien zein zati edo datu jotzen dituzten konfidentzialtzat, euren negozio-estrategiaren parte izateagatik, konfidentzialtasun-adierazpena proposamen osora zabaldu ahal izan gabe.

7. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMEN-ESKAKIZUNAK

Lizitazioan parte har dezakete jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerritarrek, betiere euren kaudimen ekonomiko edo finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute eta KPFLren 22. artikuluan ezarritako kontratatzeko baztertze-kausaren batean sartuta ez badaude, ezta interes-gatazkarik ez badute ere.

Batera parte hartzen duten lizitatzaileek ere kontrata dezakete, elkarrekin erantzukizun solidarioarekin gelditu baitira, baita Aldi Baterako Enpresa Elkarteek ere, eta ez da beharrezkoa izanen eskritura publikoan eratzea kontratua euren alde esleitu arte.

Baliozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orialdea, guztira 44

Lizitazio-eskaintza batera aurkezten duten enpresek ezin izanen dute banakako proposamenik aurkeztu. Lizitatzaile bakoitzak ezin izanen du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ezta aldi baterako beste batzuekin batera batasun-proposamenik sinatu ere banaka egiten badu, ezta aldi baterako batasun batean baino gehiagotan agertu ere. Arau hauek urratzeak arau-hausleak sinatutako proposamen guztiak ONARTU GABE uztea ekarriko du.

7.1. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

Lizitatzaile bakoitzak kontratua gauzatzeko behar bezalako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa izan beharko du; kaudimen horrek esan nahi du enpresak egoera ekonomiko eta finantzario egokia duela, kontratuaren gauzatze zuzena izaera ekonomiko edo finantzarioko gorabeherengatik ez dadin arriskuan jarri.

Lizitatzaileek adierazi beharko dute baldintza-agiri honen ANEXO II-an erantsitako ereduaren araberako erantzukizunpeko adierazpenean (A Gutun-azala) eskatutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa betetzen dutela.

Esleipendun izendatzen den lizitatzaileak dokumentu hauek aurkeztuz egiaztatu beharko du hori:

-Enpresaren urteko negozio-bolumena zehazten duen adierazpena, kontratuaren xedearen antzeko jardueren esparruan edo eraikin dotazional, tertziario eta zerbitzuen erabilerarekin lotutakoetan, 1.000.000 € edo gehiagokoa (BEZa barne), 2023, 2024 eta 2025 ekitaldietako negozio-bolumenaren baturari dagokiona.

Batera lizitatzen duten enpresen kasuan, batera lizitatzen duten enpresa bakoitzak aurkeztu beharko du adierazpen hori.

7.2. Kaudimen teknikoa:

Kaudimen teknikotzat hartzen da kontratua behar bezala gauzatzeko gaitasun teknikoa edo profesionala, antzeko kontratuetan aurretiazko esperientzia izateagatik edo nahikoa langile eta baliabide tekniko izateagatik.

Esleipendun izendatzen den lizitatzaileak dokumentu hauek aurkeztuz egiaztatu beharko du hori:

-Kontratu honen xede den obraren antzeko eraikuntza-obra bat, edo eraikin dotazional, tertziario eta zerbitzuen erabilerarekin lotutakoa, gauzatu izana, azken 5 urteetan lizitatzaileek amaitua, 500.000 euro edo gehiagoko (BEZa barne) zenbatekoarekin. Zerrenda hori ongi gauzatuaren ziurtagiriekin bermatu beharko da, non adieraziko baita zenbatekoa, obra gauzatzeko data eta lekua, lanbidea arautzen duten arauen arabera egin ziren edo ez adieraziz eta normaltasunez amaitu ziren edo ez.

-Obretara zuzendutako langileria teknikoa izatea, honako esperientzia eta betekizun hauekin:

Balozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orialdea, guztira 44

-Dedikazio osoko **OBRA-BURUA** izatea, gutxienez 500.000 euro edo gehiagoko (BEZa barne) eraikuntza-obra batean lanbide hori bete duena.

-Gutxienez % 10eko dedikazioa duen **SEGURTASUN ETA OSASUN ARDURADUNA** izatea, gutxienez 500.000 euro edo gehiagoko (BEZa barne) eraikuntza-obra batean lanbide hori bete duena.

Lizitatzaileek beste enpresa batzuen kaudimenean oinarritu ahal izanen dute, enpresa horiekin dituzten loturen izaera juridikoa edozein dela ere.

Kaudimena azpikontratazioaren bidez egiaztatzen bada, erakunde lizitatzaileak dokumentu bat aurkeztu beharko du, azpikontratistekin kontratua gauzatzeko konpromiso formal bat dagoela frogatzeko; kasu horretan, guztien kaudimena batuko da.

Halaber, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 16. eta 17. artikuluetan ezarritako moduan eta baldintzetan egiaztatu beharko du azpikontratista-enpresek kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak dituztela, eta azpikontratatutako enpresa bakoitzak atal honetan adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu bai kaudimen ekonomikoa bai teknikoa egiaztatzeko.

Sozietate-talde baten menpeko pertsona juridikoen kasuan, taldeko sozietateak kontuan hartu ahal izanen dira, betiere sozietate horiei dagozkien baliabideak benetan eskura dituztela egiaztatzen badute, kontratuak gauzatzeko beharrezkoak direnak.

Halaber, eskaintza aurkeztu ahal izateko baldintza izanen da lizitatzaileak garatzen duen xede edo jarduerak kontratuaren xedearekin zuzeneko lotura izatea, bere estatutu edo fundazio-arauen arabera, behar bezala egiaztatuta, eta kontratua gauzatzeko beharrezko baliabide material eta pertsonalak dituen antolamendua izatea.

Lizitatzaileek baieztatuko dute eskatutako kaudimena betetzen dutela erantzukizunpeko adierazpenean (eredua baldintza-agiri honen ANEXO II-n), eta hori euren proposamenari erantsi beharko diote (A Gutun-azala); esleipen-proposamena euren alde egiten den lizitatzaileak bakarrik egiaztatu beharko du hori.

Halaber, obrari izendatutako langile teknikoei eskatutako titulazioa eskatuko zaio.

8. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Kontratazio Atariko lizitazio-iragarkitik Nafarroako Lizitazio Elektronikorako Plataformaren (PLENA) atarira sar daiteke, non lizitazioan interesatutako edonork mahaigaineko aplikazio bat deskarga dezakeen, zorro digitalaren bidez eskaintzak prestatu eta aurkezteko. Aplikazio hori behin bakarrik deskargatu behar da, eta baliozkoa izanen da PLENAren bidezko gerora egiten den edozein lizitaziotarako, plataforma horri lotutako edozein erakunderentzat.

Eskaintzak lizitatuko duenaren mahaigainean zifratzen dira, zifratze-mekanismo estandarrak erabiliz, eta behin aurkeztuta, biltegi seguruan gordetzen dira.

Baliozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orialdea, guztira 44

Leitzako Udala

Eskaintza sinadura elektroniko aitortuaren bidez sinatu beharko da, Zerbitzu Ziurtagirien Emaile batek baliozki emandakoa, dokumentuaren, eskaintzaren eta harekin lotutako dokumentu guztien nortasuna eta osotasuna bermatzeko moduan, abenduaren 19ko 59/2003 Legean, sinadura elektronikoari buruzkoan, eta kontratazio publiko elektronikoari buruzko gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Eskaintza elektronikoan eransten den fitxategi bakoitzaren gehienezko tamaina 50 MB da. Eskaintzaren tamaina osoak, osatzen duten dokumentu guztiekin, gehienez 100 MB izanen ditu. PLENAk ez du mugarik ezartzen eskaintza bati eransten dakizkiokeen fitxategi-kopuruari dagokionez.

PLENAk eskaintza aurkeztean eransten diren dokumentuetarako onartzen dituen formatuak ohiko erabilerakoak dira (doc, docx, xls, xlsx, ppt, pptx, rtf, sxw, abw, pdf, jpg, bmp, tiff, tif, odt, ods, odp, odi, dwg, zip), eta, beste formatu batzuetako fitxategiak eransteko neurri gisa, fitxategi konprimitu (ZIP) batean bildu daitezke.

Plataformaren formularioetan sartutako balio objektiboen eta irizpide bakoitza babesten duten eranskin-dokumentuen artean desadostasunik izanez gero, erakunde edo enpresa lizitatzaileak, edo ordezkatzeko ahala duenak, elektronikoki sinatutako dokumentu eta eranskinek izanen dute lehentasuna.

Eskaintza bidaltzen duen pertsona edozein dela ere, eskaintza elektronikoa enpresa edo erakundearen izenean eta ordezkaritzan kontratatzeko behar adina ahaldun duen pertsonak sinatu beharko du. Beraz, bi aukera daude:

- Eskaintza osoa, era elektronikoan, enpresa edo erakundearen ahaldunen ziurtagiriarekin sinatzea; horrek balioa emanen die aplikazioaren formularioetan sartutako datu ekonomikoei.

- Edo pertsona legal baliozko baten ziurtagiriarekin eskaintza sinatzea (pertsona fisiko edo juridikoaren ordezkariaren ziurtagiri baliozkoa), eta eskaintzaren dokumentu elektronikoak, ahaldunek sinatuak, eranstea.

Proposamenak PLENAn eskaintza honetarako ezarritako egiturari jarraiki aurkeztuko dira, eta 3 gutun-azal izanen ditu, honela identifikatuak:

-**A Gutun-azala: “DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA”.**

-**B Gutun-azala: “FORMULEN BIDEZ ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”.**

-**C Gutun-azala: “FORMULEN BIDEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”.**

Gutun-azal bakoitzak dokumentu hauek izan beharko ditu, nahitaez:

A GUTUN-AZALA: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

Nahitaez sartuko dira dokumentu hauek:

Baliozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orialdea, guztira 44

1. Lizitatzailearen edo lizitatzaileen **identifikazioa**, pertsona fisikoak, baterako lizitatzaileak, pertsona juridikoak edo aldi baterako enpresa-elkarteak izan daitezkeenak. Halaber, lizitatzailearen helbide elektroniko bat aurkeztuko da, **I. ERANSKINEAN** adierazitako ereduaren arabera.

2. Lizitatzailearen, edo, hala badagokio, haren ordezkariaren **erantzukizunpeko adierazpena**, kontratatzeko eskatutako baldintzak betetzen dituela adieraziz. Adierazpen horrek **II. ERANSKINEAN** adierazitako ereduari jarraituko dio.

Adierazpen hori kontratazio publikorako dokumentu europar bakarraren (KPDEB / DEUC) indarrean dagoen formularioaren araberako erantzukizunpeko adierazpenarekin ordeztu ahal izanen da, behar bezala ahaldundutako pertsona batek beteta eta sinatuta.

3. Proposamena **batera lizitatzen duten enpresek** edo aldi baterako enpresa-elkarteek sinatzen badute, horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena sinatu beharko du, eta **IV. ERANSKINEAN** ageri den ereduaren araberako dokumentu pribatu bat erantsi beharko da, non batera lizitatzeko borondatea adierazten den, bakoitzari dagokion partaidetza-ehunekoa zehazten den eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatzen den, kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko, kontratua azkendu arte.

Idazkiak lizitatzen duten enpresa guztiek eta aipatutako ahaldunak sinatuta egon beharko du.

4. **Azpikontratazioaren** kasuan, lizitatzaileak azpikontratisten zerrenda bat aurkeztu beharko du, eta kontratua gauzatzeko haiekin konpromiso formal bat dagoela frogatzen duen dokumentu bat erantsi beharko du.

5. Europar Batasuneko estatu kideetako **enpresa ez-espainiarren** edo Batasuneko kide ez diren atzerriko enpresaburuen kasuan, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegi espainolen jurisdikziopean jartzeko adierazpena, lizitatzaileari dagokion atzerriko forua uzten duelarik, hala badagokio.

A Gutun-azal Digitalean, B eta C Gutun-azalei berezko zaien datu ekonomiko edo sozialen bat sartzen bada, proposamena ez onartzea edo baztertzea ekarriko du.

B ZORROA: FORMULEN BIDEZ ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Zorro honetan lizitatzaileak bere eskaintza baloratzeko aurkezten duen dokumentazio teknikoa sartuko da (proposamen ekonomikoa eta formula objektiboak aplikatuz baloratuko den bestelakoa salbu), 9. Klausulan aurreikusitako balorazio-irizpideetan jasotako alderdiak barne.

Balozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 44

Ez da inoiz sartuko gutun-azal honetan formula objektiboen bidez baloratu behar diren irizpideei buruzko informazioa duen dokumenturik; hala egiten dutenak baztertu eginen dira.

Enpresa lizitatzaileek, aurkeztutako dokumentazioari batasuna emateko helburuz, aurkeztutako hainbat proposamen homogeneoki eta bidezkotasunez ebaluatu eta konparatu ahal izateko, ondoren adierazitako egitura, eduki, formatu eta gehienezko luzerara egokitu beharko dute aurkezpena.

Ohar garrantzitsuak:

-B gutun-azal digitaleko eskaintzan aurkezten den dokumentazio osoak gehienez **20 orrialde** izan ahal izanen ditu. Dokumentazio horrek balioets daitezkeen alderdien azalpen zehatz eta laburra izanen du, esleipen-irizpideetan azaldutako ordena zorrotz mantenduz, baita horien xehetasunean ere. Orokortasunak ekiditen saiatuko da.

-Ez zaio dokumentazioari eranskinik erantsiko.

-Dokumentu horrek balioets daitezkeen alderdien azalpen zehatz eta laburra izanen du, eta orokortasunak ekiditen saiatuko da. Proposamenek adierazitako gehienezko luzera gainditzen badute, lehen orriak bakarrik aztertu eta baloratuko dira, gainerako informazioa baztertuta.

B Gutun-azalean, C Gutun-azaalari berezko zaion datu ekonomiko edo sozialen bat sartzen bada, proposamena ez onartzea edo baztertzea ekarriko du.

Edukia honakoa izanen da:

B.1.- Lizitazioaren xede diren obren proiektuaren azterketa arrazoituaren dokumentua

Dokumentu honen xedea da lizitatzaileak lizitazioaren xede diren obrak gauzatzeko oinarri den Gauzatze Proiektuaren azterketa xehea egitea. Azterketak proiektu espezifiko honen puntu kritikoak eta bereizgarriak jaso beharko ditu, eta enpresak bakoitzarentzat planteatzen dituen gauzatze-proposamen zehatzak deskribatu beharko ditu.

Dokumentu honek eraikinaren proiektuaren azterketa hartuko du barne, eta bai obra zibileko jarduerak bai instalazioetakoak aztertuko dira.

B.2.- Obren antolamendu eta ezarpenerako proposamen-dokumentua

Dokumentu honek lursailean obrak antolatzeko modua hartuko du barne, eta bai obra zibileko jarduerak bai instalazioetakoak aztertuko dira.

Lizitatzaileak obretarako proposatutako antolamendua azaltzeko behar duen dokumentazioa jasoko du, honako hauek barne:

Balliozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 44

-Obra egungo eremuan eta ondoko guneetan ezartzeko plano bat (obra-fase ezberdinetarako ezarpen-plano ezberdinak, hala badagokio), non honakoak islatuko diren, besteak beste:

·Aurreikusitako obra-itxitura.

·Obrarako elikadura-koadro nagusiaren kokapena.

·Obrarako sarbideak, bai ibilgailuenak bai oinezkoenak.

·Zirkulazioen eta bideratzeen antolamendua.

·Garabien eta aldamioen kokapena.

·Materialak biltegiratzeko eta obra-hondakinak metatzeko espazioen aurreikuspena.

·Eraginen tratamenduak.

-Obren antolamendu-proposamenaren eta planoetan planteatutako ezarpenaren memoria justifikatiboa.

-Segurtasun eta osasun azterlanean garatutako segurtasun- eta osasun-neurriak hobetzeko proposamenak.

B.3.- Obren gauzatze-planaren dokumentua

Lizitatzaileak obren gauzatzearen plangintza azaltzeko behar duen dokumentazioa jasoko du, memoria justifikatiboan azaldutako bide kritikoa adierazten duen Gantt diagrama bat edo antzekoa barne, eta beharrezkoa izanez gero, argitzeko beste dokumentu batzuk.

A edo B gutun-azaletan formulen bidez zenbatu daitezkeen irizpideei buruzko informazio edo daturik sartzen duen proposamen oro automatikoki baztertuko da.

B.4. - Eraikuntzaren ondoko zerbitzu-planaren dokumentua

Eskainitako bermealdian zehar lizitatzaileak burutzeko konpromisoa hartzen duen eraikuntzaren ondoko zerbitzuaren deskribapena baloratuko da, dituen baliabideak adierazita.

Proposamena baloratuko da udal-langileei obra-unitateen funtzionamenduaren mantenu-prestakuntzarako duen gaitasuna, jarrera eta ahalegina frogatzen duten datu egiaztagarrien eta argudio teknikoen arabera.

Irizpide hau puntuatzeko, lizitatzaileak Leitzatik gehienez 150 kilometrora dagoen lantoki operatibo bat duela frogatu beharko du (langileak, tresnak eta makineria esleituta dituen lokala, behar bezala dokumentatua), gorabeheren aurrean erantzun azkar eta eraginkorra bermatzeko, gehienez 24 orduko erantzun-konpromisoarekin.

C GUTUN-AZALA: FORMULEN BIDEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Baliozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 44

Leitzako Udala

Gutun-azal honetan lizitatzaileak eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez zenbatu daitezkeen irizpideei buruzkoa sartuko ditu, **III. ERANSKINEAN** jasotako ereduaren arabera. Zehazki, dokumentu hauek jaso beharko ditu:

C.1. Eskaintza ekonomikoa, kontratua arautzen duen Baldintza-agiriaren **III. ERANSKINAren** ereduaren arabera idatzita, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta. Bakarra izanen da eta ez du BEZaren zenbatekoa jasoko.

Baterako lizitatzaileen kasuan, guztiek edo haien ordezkariak sinatu beharko dute.

Eskaintza ekonomikoak egokia izan beharko du esleipendunak dagokion hitzarmen sektorialaren aplikaziotik eratorritako kostuari aurre egiteko, inolaz ere kontuan hartutako soldaten ordu-prezioak hitzarmenaren ordu-prezioa gehi Gizarte Segurantzaren kostuak baino txikiagoa izan gabe.

C.2. Bermealdiaren luzapena, Baldintza-agiriaren ereduaren arabera (**III. ERANSKINA**).

C.3. [Lan-kontziliazio Planaren aurkezpena], enpresan indarrean dagoena, lizitazioaren hasiera-datu baino lehen sinatua (**III. ERANSKINA**), enpresaren ordezkaritza sindikalak balioetsia, edo hori ezean, enpresaren ordezkariak. **Dokumentua digitalki edo eskuz sinatuta egon beharko du.**

C.4. [Obraren azken garbiketa Gizarteratzeko Enpresa edo Laneratzeko Enpresa berezietan (CES edo EIS) azpikontratatzeko konpromisoa], Baldintza-agiriaren III. ERANSKINEko ereduaren arabera idatzia.

Ez dira onartuko lizitazio-prezioa baino zenbateko handiagoa duten proposamenak. Ez dira onartuko, halaber, Administrazioak eskaintza baloratzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ezagutzea eragozten duten hutsuneak, akatsak edo ezabatzeak dituzten proposamenak; gehienez bi hamartar erabiliko dira.

Eskaintzan jasotako zenbatekoei dagokienez, letraz adierazitakoek lehentasuna izanen dute zifraz adierazitakoen aurrean.

9. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Esleipenduna hautatzeko, proposamenak modu honetan baloratuko dira:

B. FORMULEN BIDEZ ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

B.1. Obren proiektuaren azterketa arrazoituaren dokumentua ..... 0-10 puntu.

B.2. Obren antolamendu eta ezarpenerako proposamen-dokumentua. 0-10 puntu.

B.3. Obren gauzatze-planaren dokumentua ..... 0-5 puntu.

B.4. Eraikuntzaren ondoko zerbitzu-planaren dokumentua .....0-5 puntu.

GUZTIRA ..... gehienez 30 puntu.

Irailaren 18ko Leitzako udaleko alkatearen 348/2026 ebazpenaren bitartez onartuta

Balioztatze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 44

Leitzako Udala

C. FORMULEN BIDEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

C.1. Eskaintza ekonomikoa…….. 0-50 puntu.

C.2. Bermealdiaren luzapena…….. 0-10 puntu.

C.3. Familia-kontziliazio Planaren aurkezpena…….. 0-5 puntu.

C.4. Obraren azken garbiketa CES edo EISekin azpikontratatzeko konpromisoa ….. 0-5 puntu.

GUZTIRA …….. gehienez 70 puntu.

B. FORMULEN BIDEZ ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (30 PUNTU)

B.1. Obren proiektuaren azterketa arrazoituaren dokumentua (10 puntu arte)

Balioetsiko da:

-Azterketa-dokumentuaren arrazoiketen egokitasuna eta kalitatea, baita xehetasun- eta zehaztasun-maila ere.

-Proiektu honek izan ditzakeen puntu kritikoen eta bereizgarrien detekzioa (proiektua osatzen duten dokumentu ezberdinetan definitutakoari erreferentzia eginez: memoria eta haren eranskinak, aurrekontua, partiden azterketak barne, neurketak, etab.).

-Planteatutako irtenbideen eta gauzatze-proposamenen koherentzia, egokitasuna eta kalitatea.

B.2. Obren antolamendu eta ezarpenerako proposamen-dokumentua (10 puntu arte)

Balioetsiko da:

-Eremuan obra ezartzeko proposamenaren egokitasuna eta kalitatea (langileen instalazio eta barne-zirkulazioekin) eta hiritartze-eremu hurbilekoena, horretarako xehetasun- eta zehaztasun-maila nahikoarekin adierazi beharko delarik.

-Segurtasun eta Osasun Azterlanean garatutako segurtasun- eta osasun-neurriak hobetzeko proposamenik egokienak.

-Inguru urbanoko jardueraren interferentzien detekzioa eta obrak gauzatu bitartean bizilagunentzako, oinezkoentzako eta langileentzako eraginak minimizatzeko eta arriskuak prebenitzeko neurrien planteamendua.

B.3. Obren gauzatze-planaren dokumentua (5 puntu arte)

Balioetsiko da:

-Aurreikusitako eraikuntza-prozesuaren eta egindako plangintzaren egokitasuna eta kalitatea, xehetasun- eta zehaztasun-maila.

Balozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 44

-Lanak gauzatzeko baliabide eta bitartekoen esleipenaren koherentzia eta justifikazioa, eta bide kritikoa behar bezala ezartzea.

Formulen bidez zenbatu ezin daitezkeen irizpideen multzoak (A1+A2+A3) gutxienez 15 puntu lortu beharko ditu, eskaintza baztertua gera ez dadin.

C. FORMULEN BIDEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (70 PUNTU)

C.1. Eskaintza ekonomikoa (50 puntu arte)

$$P = 50 \times \frac{\text{eskeintza bajuena}}{\text{Baloratu beharreko eskeintza}}$$

P (baloratu beharreko eskeitzaren puntuak) =

-Aurkeztutako eskaintzaren batean akats material edo aritmetikorik dagoela ikusiz gero, eta eskaintza bikoitza dagoela interpretatu ahal izatea saihesteko, Kontratazio Mahaiak beti hartuko du baliozko eskaintza ekonomikotzat letraz adierazitako zenbatekoa duena.

-Eskaintza anormalki baxutzat hartuko da lizitazioaren gehienezko prezioaren azpitik % 20 puntu portzentual baino gehiago dagoen edozein eskaintza ekonomiko. 10. Klausulan xedatutakoari jarraituko zaio.

C.2. Bermealdiaren luzapena (10 puntu arte)

Gehienezko 3 urteko bermetik gora izandako urte gehigarri bakoitzeko 2,50 puntu emanez baloratuko da, gehienez **5 puntu**.

Bermealdia luzatzeak abala edo behin betiko bermea epe osoan zehar atxikita edukitzea ekarriko du.

[C.3. Lan-kontziliazio Planaren aurkezpena (5 puntu)]

Enpresan indarrean dagoen Lan-kontziliazio Planaren aurkezpena, gutxienez bizitza familiarra eta laborala kontziliatzeko bi neurri zehatz dituena, lizitazioaren hasiera-data baino lehen sinatua, enpresaren ordezkaritza sindikalak edo, hori ezean, enpresaren ordezkariak balioetsia.

Gutxienez bi neurri zehatz dituen Kontziliazio Plana badago eta aurkezten bada, **5 puntu** emanen dira, eta 0 puntu bestela.

[C.4. Obraren azken garbiketa Gizarteratzeko Enpresa edo Laneratzeko Enpresa berezietan (CES edo EIS) azpikontratatzeko konpromisoa (5 puntu)]

5 puntu emanen zaizkio obraren azken garbiketa Gizarteratzeko Enpresa edo Laneratzeko Enpresa berezietan (CES edo EIS) azpikontratatzeko konpromisoa hartzen duen proposamenari.

Konpromiso hori proposamenean aurkezten ez bada, edo dagokion laukian berariaz adierazten bada lizitatzaileak EZ duela konpromiso hori hartzen, 0 puntu emanen dira irizpide honetan.

Baliozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 44

Irizpide honen betetzea, obrak amaitzean, azpikontratazioari dagozkion fakturak aurkeztuz egiaztatuko da.

10. ESKAINTZA ANORMALKI BAXUAK

Eskaintza bat anormalki baxutzat jo daiteke beherapena lizitazioaren gehienezko prezioaren % 20 baino handiagoa denean; kasu horretan, KPFLn ezarritakoari jarraituko zaio, eskaintza hori onartzeko edo baztertzeko ebazteko prozedurari eta kontuan hartu beharrekoei dagokienez:

Lizitazio-prozedura batean kontratuaren prestazioei dagokienez erregularki beteko ez dela pentsarazten duen eskaintza anormalki baxu bat aurkezten bada, Administrazioak, eskaintza baztertu baino lehen, gorabehera hori eragindako lizitatzaile guztiei jakinaraziko die, bost eguneko epean dagozkien alegazioak aurkez ditzaten.

Lizitatzaileen alegazioak ikusita eta beharrezko aholku teknikoa jasota, eskaintza onartzeari buruz arrazoituz ebatziko da.

Eskaintza anormalki baxu bat onartzen bada, lizitatzaileak aurkez ditzakeen justifikazioak ikusita, kontratu publikoei buruzko foru-legeriaren arabera, esleipen-prezioaren % 50era arteko fidantza eskatuko zaio, kontratua jaso baino lehen itzuli edo partzialki ezeztatzeko aukera galarazi gabe, aldez aurretik kontratuaren kudeaketa-unitatearen txostena jasota.

11. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA KALIFIKAZIOA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, Kontratazio Mahaiak, barne-ekitaldi batean, lizitatzaileek A Gutun-azalean “Dokumentazio Administratiboa” aurkeztutako dokumentazio administratiboa kalifikatuko du.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago eta zalantzaren bat sortzen badu, eskaintza aurkeztu duenari eskatuko zaio ziurtagiriak eta dokumentuak osatu edo zuzendu ditzan, errekerimenduaren jakinarazpenetik kontatzen gutxieneko bost egun naturaleko epean. Errekerimendu hori bitarteko telematikoen bidez eginen da, PLENAren jakinarazpen-moduluaren bidez.

Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, Kontratazio Mahaiak, barne-ekitaldi batean, onartutako enpresen “Formulen bidez zenbatu ezin daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa” duen B Gutun-azala irekiko du, eta 9. Klausulan adierazitako esleipen-irizpideen arabera baloratuko du, behar bezala haztatuta.

Kontratazio Mahaiak, bere proposamena egin baino lehen, kontratuaren xedearekin lotutako eta beharrezkotzat jotzen dituen adina txosten eska ditzake.

Arau-hausteen larritasuna zehazteko, hausteko modua, kontratistaren arduragabekeria-maila, eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa eta berrerortzea baloratuko dira, betiere proportzionaltasun-printzipioari jarraikiz. Nolanahi ere, KPFLren 66. artikuluko gauzatze-baldintza bereziak ez betetzea oso larria izanen da.

• **Arina:** Kontratuaren funtzionamenduari eta eraginkortasunari desegokiro eragiten dioten, baina maltzurki egin ez direnak, ez pertsona, animalia edo gauzentzako arriskurik dakartenak, ez egindako lanen bizitza ekonomikoa murrizten dutenak, ez erabiltzaileei eragozpenik sortzen dietenak arintzat hartuko dira. Besteak beste, hauek dira:

- Teknikariekiko aldizkako bisitak ez betetzea.
- Lanetako hasierako eta ohiko funtzionamendu-mekanika ez betetzea.

Balioztatze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 30. orrialdea, guztira 44

- Esleipendunari egotz dakiokeen lanen atzerapena edo etenaldia, hiru egun baino gutxiagoko denboran, edo obligazioak betetzean arduragabekeria edo axolagabekeria.
- Erabiltzaileei zein auzokoei behar ez bezalako eragozpenak sortzea.
- Lanak amaitu ondoren hondakinak edo material soberakinak berehala ez kentzea.
- Baldintza-agiri honetan ezarritako beste edozein obligazio betetzea, larritasun handiagorik gabe eta Administrazioari edo hirugarrenei kalte arinak eraginez gero.

• **Larria:** Ikuskapenen edo eskatutako hainbat lanen edo kontratu-prestazio eta -eskakizunen gauzatze eskasak eragindakoak, egindako lanen bizitza ekonomikoan eragin negatiboa izan dezaketenak edo erabiltzaileei eragozpen eta arriskuak eragin diezazkieketenak, edo kontratatutako lanen udal-kontrol edo -ikuskapenari kalte larria eragiten diotenak, larritzat sailkatuko dira.

- Kontratua gauzatzean hiru hutsegite arin gertatzea.
- Edozein hutsegite arin errepikatzea.
- Lanetako segurtasun- eta osasun-neurriak ez betetzea.
- Kontratatutako eragiketa edo zerbitzuren bat ez ematea.
- Kontratuaren kudeaketa-unitateak gauzatzeari buruz emandako aginduak ez betetzea.
- Eskaintzan jasotako giza edo material baliabideak kontratua gauzatzera atxikitzeko konpromisoa ez betetzea.
- Prestatutako kontratuaren arrazoiz ezagututako gaiei buruzko diskrezioa ez gordetzea.
- Kontratuan definitutako prestazioen gauzatzea partzialki ez betetzea.
- Kontratistari egotz dakiokeen prestazioaren atzerapena edo etenaldia, hiru egun edo gehiagokoa eta hamabost egun baino gutxiagokoa, arduragabekeria edo axolagabekeria jarraitua bada.
- Kontratua kontratistari egotzi ahal zaion arrazoiengatik epean ez formalizatzea.
- Giza edo material baliabideen falta edo gabezia.
- Kontratua gauzatzean beharrezko diren giza edo material baliabideak ez aplikatzea.
- Baldintza-agiriak baimendu edo onartu gabeko publizitatea jartzea. Kontratistaren publizitatea makinerian eta obra-etxoletan bakarrik jarri ahal izanen da.

• **Oso larria:**

- Kontratua gauzatzean hiru hutsegite larri gertatzea.

Balioztatze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 31. orrialdea, guztira 44

- Edozein hutsegite larri errepikatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko araudia ez betetzea.
- Udalarekiko iruzur ekonomikoa, errealitatearekin bat ez datozen ziurtagiri edo fakturen bidez, edo bestelako edozein bide erabiliz, dolorik egon behar izan gabe.
- Errendimendu-falta nabarmena, kontratuaren prestazio okerra eta akastuna, bai kalitateari bai kopuruari dagokienez.
- Deialdiko dokumentazioan esleipen edo gauzatzeko irizpide sozial edo ingurumen-irizpideei buruzko txosten faltsuak aurkeztea.
- Azpikontrataziorako ezarritako baldintzak urratzea.
- Kontratistari egotz dakiokeen kontratu-prestazioaren atzerapena edo etenaldia, hamabost egun edo gehiagokoa, edo obra abandonatzea.
- Sekretu profesionala gordetzeko obligazioa ez betetzea edo datu-babesari buruzko araudia ez betetzea.
- Txostenetan gezurra esatea.
- Elementu edo instalazio bat hondatzen uzteko jokabide asmatua.
- Eskainitako gauzatze-epea edo kontratuaren xedea betetzeko, edo Kontratuaren Arduradunak edo kudeaketa-unitateak eskatutakoak betetzeko, giza eta material baliabide nahikorik ez izatea.
- Kontratua abandonatzea.
- Aurkeztutako irizpide sozial eta ingurumen-irizpideak ez betetzea.
- Baldintza-agiri honetan ezarritako gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea.
- Kontratazio-organoaren berariazko baimenik gabe kontratuaren eskubide eta obligazioak lagatzea.
- Baldintza Arautzaile hauetan gutxienez ezarritako estaldurak dituen aseguru-poliza indarrean ez izatea.

16.6.2. Zehapenen zenbatekoa.

A. Atzerapen edo etenaldiagatik: Kontratuaren gauzatzea hasteko atzerapen-egun bakoitzeko edo kontratuaren gauzatzea etetearen egun bakoitzeko, KPFLren 147.3 artikuluan aurreikusitako zehapena ezarriko da.

B. Gainerako hutsegiteengatik: Gainerako hutsegiteetako edozein egiteagatik, KPFLren 146.3 artikuluan aurreikusitako zehapenak ezarriko dira.

Ezin izanen dira obligazioak ez betetzeko indar nagusiko edo justifikatutako arrazoitzat alegatu:

- Ohiz kanpokoak ez diren edo ondorio hondagarririk ez duten klimatologia-baldintza kaltegarriak.
- Enpresa esleipendunaren barne-lan-etenaldiak.

Balozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 32. orrialdea, guztira 44

- Bere langileen edo hirugarrenen oporrak edo lan-bajak.

Esleipendunak, ez-betetzea gertatuz gero, eragindako kaltea konpondu beharko du, horrek eragindako gertakariak sor lezakeen erantzukizuna eskatzearen kalterik gabe.

Zehapenen zenbatekoak kontratistari ordaindu beharreko ordainketa osoetatik edo zatikakoetatik, edo, hala badagokio, eratutako bermetik kenduz gauzatuko dira.

Zehapenak ezartzeak ez du baztertzen arau-hausteak eragindako kalte-galerengatik Administrazioari kalte-ordaina emateko aukera.

17. PREZIO KONTRAJARRAK

Proiektuan aurreikusi gabeko obra-unitateak baloratzeko, gauzatu baino lehen, Esleipendunaren eta Obra Gauzatzeko Kontratuaren Zuzendaritzaren artean prezio kontrajarriak hitzartuko dira, prezio-koadroko irizpide antzekoetan oinarrituz, eta horrelakorik ez badago, proiektuko gainerako unitateen elaborazioan erabilitako antzeko irizpideetan oinarrituz.

Adostasunik lortzen ez bada, kontratistak Kontratazio Publikoaren Batzordeari eska diezaioke prezio horiek zehazteko arbitraje bat, edo unitate berrien gauzatzeari uko egin diezaioke.

Nolanahi ere, eta adostasunik izan ezean, Obra Gauzatzeko Kontratuaren Zuzendaritzak aukera du dagozkion obra-unitateak hirugarren baten bidez gauzatzeko, kontratatutako obraren garapenean zehar ere bai.

Halaber, Obra Gauzatzeko Kontratuaren Zuzendaritzak, egoki iritziz gero, idatziz agindu diezaioke Esleipendunari obra-unitate horiek berehala gauzatzeko, aldez aurretik preziorik hitzartu ez bada ere, balorazio hori geroko utziz. Beti beharrezkoa izanen da agindu horren idatzizko froga izatea, eta Esleipendunak agindu horretatik bost eguneko epean idatziz aurkeztu beharko du unitatearen balorazioaren justifikazioa; horri artikulu honen lehen paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaio.

18. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratuaren aldaketei dagokienez, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 114, 115, 143 eta 144 artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio.

Kontratazio-organoak, kontratuaren balio zenbatetsian zenbatu bada, hasierako kontratuan edo obra-proiektuan aurreikusitakoen aldean benetan gauzatutako unitate-kopurua aldatzeko ahalmena ere erabil dezake, 3. Klausulan adierazitako ehunekoraino, gastuaren gehikuntza esleipen-zenbatekoaren % 10 gainditu gabe, KPFLren 144.1 artikuluan aurreikusitako moduan ziurtagirietan sartuz, eta aurreko paragrafoan aipatutako artikuluetan aurreikusitako gainerako aldaketen kalterik gabe.

Balozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 33. orrialdea, guztira 44

Kontratazio-organoak behar bezala onartu gabeko kontratu-aldaketek, baldintza-agiri honetan ezarritakoaren arabera, kontratistaren erantzukizuna sortuko dute, eta honek galduko du baimenik gabe gauzatutako aldaketa horiek ordaintzeko eskubide oro.

19. AZPIKONTRATAZIOA ETA KONTRATUAREN LAGAPENA

Kontratuaren xede diren prestazioak azpikontratatu ahal izanen dira, izaera guztiz pertsonalekoak salbu, lizitatzaileak, bere kaudimena egiaztatzean, azpikontratisten zerrenda xehea aurkeztu badu, KPFLren 18. artikuluan ezarritako moduan.

Kontratutik eratorritako eskubide eta obligazioak hirugarren bati laga edo azpikontratazioaren xede izan ahal izanen dira, Kontratu Publikoei buruzkoapirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 108 eta 107 artikuluetan, hurrenez hurren, ezarritakoaren arabera.

KPFLren 36. artikuluan aurreikusitako izaera sozialeko erakundeekin azpikontratatu beharko dira eraikinaren garbiketarekin lotutako prestazioak.

Kontratistak azpikontratazioaren berri eman beharko die langileen ordezkariei, lan-legeriaren arabera. Leitzako Udalak sinatutako azpikontratuen berri izateak ez du aldatuko kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa. Nolanahi ere, esleipenduna izanen da Administrazioaren aurrean kontratua behar bezala betetzearen erantzule bakarra, eta azpikontratisten aurrean betebeharpeko bakarra.

Halaber, kontratutik eratorritako eskubide eta obligazioak hirugarren bati laga ahal izanen zaizkio KPFLren 108.1 b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, betiere hasierako prestazioaren gutxienez % 20 gauzatuta badago, gauzatzearen hasieratik urtebete igaro bada eta kontratazio-organoak berariaz baimentzen badu. Lagapenaren formalizazio-dokumentua, baita lagapen-hartzailearen kaudimena egiaztatzen duten dokumentuak ere, Leitzako Udalari jakinarazi beharko zaizkio. Jakinarazpen hori egiten ez den bitartean, Leitzako Udalak ez du inolako obligaziorik izanen lagapen-hartzailearekin.

20. KONTRATUAREN AZKENTZEA

20.1. Kontratua betetzea

Kontratua kontratistak beteta ulertuko da, honek, kontratuaren baldintzen arabera eta Leitzako Udalaren gogobetetzerako, bere xede osoa gauzatu duenean.

KPFLren 158.2 artikuluaren arabera, obra amaitu eta hurrengo 30 egunen barruan, obraren harrera formala eginen da; gainerakoan, KPFLren 172. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

20.2. Egindako lanen jabetza

Balliozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 34. orrialdea, guztira 44

Leitzako Udalaren jabetzakoak izanen dira, bai kontratatutako eta jasotako prestazioak bai egindako lanen berezko eskubideak, haien jabetza industrial eta komertziala barne, Administrazioak bere erabilera erreserbatuko duelarik, ezin izanen direlarik merkaturatu, erreproduzitu edo Udal honek berariaz baimendu gabeko beste edozein erabileratan erabili, eta, ondorioz, Udalak edonoiz eska dezake horiek osatzen dituzten dokumentu edo materialak entregatzea, haien aurrekari, datu edo prozedura guztiekin.

Kontratistak, euskarri informatikoan, lanak egiteko erabilitako datu, kalkulu, prozesu eta prozedura guztiak eman beharko dizkio Leitzako Udalari. Jabetza intelektualaren xede diren lanak Administrazio kontratatzaileari esklusibotasunez berariaz lagatzat hartuko dira, aurretiazko eskubideen kasuan izan ezik, non lagapena ez baita esklusiboa izanen.

Halaber, baldintza-agiri honek arautzen duen prozeduran, edozein fasetan, kontratua gauzatzean egindako azterlan eta dokumentu guztiak Leitzako Udalaren jabetzakoak izanen dira.

Kontratistak ezin izanen du bere onerako erabili ez hirugarrenei kontratatutako lanen daturik eman, ezta lan horien edukia osorik edo zatika argitaratu ere, Leitzako Udalaren idatzizko baimenik gabe. Nolanahi ere, kontratista izanen da obligazio hori ez betetzetik eratorritako kalte-galeren erantzule.

Leitzako Udalaren jabetzakoak izanen dira kontratuaren gauzatzetik eratorritako jabetza intelektualeko eskubide ekonomiko guztiak, hori kontratuan inplizitutzat hartzen delarik.

Eskuratze hau esklusiboki eta munduko esparruan egiten da, eta kontratuari berezko zaizkion jabetza intelektualeko eskubide ekonomiko guztiak hartzen ditu barne, eta Leitzako Udalak libreki eta prezio gehigarririk ordaindu gabe erreproduzitu, banatu, jendaurrean komunikatu eta eraldatu ahal izanen du, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginaren 26. artikuluak ezarritako epean; horrela, lana edozein euskarri material edo ez-materialetan adierazteko eskubidea izanen du, gaur egun ezagunak edo etorkizunean asma daitezkeenak, ustiapen-modalitate guztiak barne, edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzeko eskubideak barne; horien artean, bereziki, liburu-formatuan eta euskarri digital edo numerikoan argitaratzea, baita Lanaren banaketa- eta komunikazio publiko-eskubideak ere, mundu osoan merkaturatzeko. Berariaz sartzen da lanen on-line igorpena eta transmisioa, eta Internet motako sare digital elkarreragileen bidez eskuragarri jartzea.

20.3. Ebazte- eta deuseztasun-arrazoiak. Ondorioak

KPFLren 160. eta 175. artikuluetan jasotako edozein arrazoi kontratua ebazteko arrazoi izan daiteke.

Kontratistari edo Leitzako Udalari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik formalizatu ez izana ebazte-arrazoi izanen da, KPFLren 160.1 l) artikuluaren arabera.

Baliozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 35. orrialdea, guztira 44

KPFLren 13. artikuluaren arabera lizitazioan batera parte hartzen duten pertsona edo ABEEen kasuan, ebazte-arrazoiak kideetako bakarren bat edo batera parte hartzen dutenetako bat bakarrik ukitzen badu, kontratazio-organoak eskubidea izanen du ukitu gabeko gainerakoei kontratu-obligazioak betetzeko eska diezaien, edo kontratua ebazteko erabakia hartzeko, betiere geratzen diren lanetarako kaudimena badute.

21. BERMEALDIA ETA ERAIKUNTZAREN ONDOKO ZERBITZUA

Bermealdia gutxienez 3 urte]koa izanen da, edo, hala badagokio, esleipendunak eskainitako epe luzeagoa, eta harrera edo onarpenetik kontatzen hasiko da.

Bermeak esleipendunak instalatutako unitateen Kontratistak hornitutako piezaren mekaniko eta elektrikoen edozein hondamen estali beharko du, erabilera desegokiaren kasu frogatuan izan ezik.

Obrak egoera onean eta aurreikusitako baldintzen arabera badaude, zuzendaritza fakultatiboak jasotzat emanen ditu, dagokion akta jasoz eta bermealdiari orduan hasiera emanez.

Obrak jasotzeko egoeran ez badaude, hala jasoko da aktan, eta zuzendari fakultatiboak epe jakin batean dagozkion lanak egiteko jarraibide zehatz eta xeheak emanen ditu; epe hori igarotakoan, berrikuspen berri bat eginen da obren harrerarako. Esleipendunak bete ez badu, kontratua ebatzita geldituko da, bermea galduz, ezarritako epean obrak amaitu ez direlako, zuzendaritzak epe berri bat ematea egoki iritzi ezean, hura luzaezina izanen delarik.

Behar den kasuetan (ekipo mekaniko edo elektrikoen instalazioetan), esleipendunak haien mantenurako dokumentazio egokia emanen du. Harrera-ekitaldian, behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzeko komenigarritzat jotzen diren frogak eginen dira.

Harrera partzialik izanez gero, bermealdia dagozkion harrera partzialen datetatik kontatzen hasiko da.

Bermealdian, kontratistak erantzukizuna izanen du obretan antzeman daitezkeen hondamen guztiengatik, baldintza-agiriko eta/edo proiektuko Preskripzio Teknikoetan aurreikusitakoaren eta Leitzako Udalak Obraren Zuzendaritzari emandako jarraibideen arabera, beti kontuz izanik beharrezko lanek obra bideratuta dagoen erabilera publikoa ez oztopatzeko.

Aipatutako hondamenak, borondatez edo Leitzako Udalak edo Obraren Zuzendaritzak eskatuta, konpontzen ez baditu, Administrazio kontratatzaileak eginen ditu, behin betiko bermearen kontura.

Kontratistaren erantzukizuna obran antzeman daitezkeen hutsegiteengatik hedatzen da kontratistari egotz dakizkiokeen eraikuntza-akatsen ondoriozko kasuetara, akats horiek Obraren Zuzendaritzak edo kontratuaren arduradunak aztertu eta baiestu izan arren, eraikitako berehala nahiz kontratuaren indarraldiaren edozein unetan.

Balioztatze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 36. orrialdea, guztira 44

Bermealdian (eta bereziki abian jartzen den lehen 3 hilabeteetan), kontratistak bere kontura eginen ditu instalazioetan egin beharreko doikuntzak, behar bezala eta berehala funtzionatzen dutela bermatuz; bestela, aurretiazko errekerimendu gehiagorik gabe, Leitzako Udalak eginen ditu.

Bermealdia amaitu baino hamabost egun lehenago, obraren zuzendari fakultatiboak edo kudeaketa-unitateak, ofizioz edo kontratistak eskatuta, obren egoerari buruzko txosten bat idatziko du. Gorabeherarik antzematen ez bada, kontratista bere obligazioetatik libratuta geldituko da, akats ezkutuen kasuetarako xedatutakoa salbu; hutsuneak egiaztatuz gero, KPFLren 172.5 artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

Txostenean obren gauzatzetik eratorritako eta erabileraren ondorio ez diren hutsuneak egiaztatzen badira, obraren zuzendari fakultatiboak kontratistari zuzentzeko dagozkion jarraibideak emanen dizkio, beharrezko epea adieraziz, eta bermealdiak indarrean jarraituko du behar bezala zuzendu arte.

Kontratista eraikuntzaren edozein elementutan izandako akats ezkutuen erantzule izanen da, kontratua ez betetzearen ondorio badira, bermealdia amaitu eta hamabost urteko epean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe, kontratistak obran eragindako kalte materialen erantzule izanen da, zimentazioari, euskarriei, habeei, forjatuei, karga-hormei edo beste elementu estrukturalei eragiten dieten akats edo hutsuneen ondorio badira, eta eraikuntzaren erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna zuzenean arriskuan jartzen badute, hamar urteko epean, obra erreserbarik gabe jaso den datatik edo horiek zuzendu diren datatik kontatzen hasita.

Halaber, kontratua likidatzeko izapidea eginen da, KPFLren 173. artikuluaren arabera, ordaintzeko dauden obligaziorik badago, eta behin betiko bermea itzuli edo ezeztatuko da.

22. ERREGIMEN JURIDIKOA

Kontratu honek izaera administratiboa du, eta baldintza-agiri honek arautuko du, bere administrazio-klausula eta zehaztapen teknikoekin batera; hemen aurreikusi gabekoetan, apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa, uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, eta aplikagarri den gainerako araudia aplikatuko dira.

Baldintza-agiri honek, bere eranskinek, obren proiektuak eta erantsiko diren gainerako dokumentuek izaera kontraktuala izanen dute. Baldintza-agiriaren eta gainerako dokumentu kontraktualen artean desadostasunik izanez gero, baldintza-agiri honek izanen du lehentasuna. Halaber, izaera kontraktuala izanen du kontratista esleipendunaren eskaintzak eta kontratuaren formalizazio-dokumentuak.

Kontratuaren klausulak, edozein alderdi kontraktualetan, gainerako dokumentu kontraktualetan eta gauzatzean aplikagarri diren jarraibide edo araudian ezagutzarik ez izateak ez du esleipenduna horiek betetzeko obligaziotik salbuesten.

Balozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 37. orrialdea, guztira 44

Leitzako Udala

Kontratazio-organoak kontratua interpretatzeko, betetzeari buruzko zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiengatik aldatzeko, haren ebazpena hitzartzeko eta horren ondorioak zehazteko eskumena du, betiere Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean adierazitako mugen barruan eta bertan ezarritako eskakizun eta ondorioei jarraikiz.

23. ERREKURTSOAK ETA ERREKLAMAZIOAK

Kontratu hau izaera administratibokoa da, eta, beraz, obligazioak betetzetik eta xedapen hauek interpretatzetik eratorritako edozein gorabehera, lehenik eta behin kontratazio-organoak ebatziko du.

Baldintza-agiri honen aurka eta hura gauzatzean emandako ebazpenen aurka, honako errekurtso hauek aurkeztu ahal izanen dira, nahi izanez gero:

-Kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren aurrean, hamar eguneko epean, honakoetatik kontatzen hasita:

a) Lizitazio-iragarkia argitaratu eta hurrengo eguna, iragarki hori eta bertan ageri den dokumentazioa inpugnatzeko.

b) Inpugnatutako egintzaren jakinarazpena eta hurrengo eguna, lizitatzaileek izapidetze- eta esleipen-egintzak errekurritzen dituztenean.

c) Kontratu baten aldaketaren edo bitarteko instrumentu bati egindako enkarguaren argitalpen-eguna eta hurrengo eguna.

Erreklamazio berezia honako arrazoi hauetako batean bakarrik oinarritu beharko da:

a) Esleipendunak Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean adierazitako lizitaziotik kanpo geratzeko arrazoiren batean sartuta egotea.

b) Esleipendunak kaudimen ekonomiko eta finantzario, tekniko edo profesionalik ez izatea.

c) Lizitazioan edo kontratuaren esleipenean publizitate-, lehia- eta gardentasun-arauak urratzea, eta, bereziki, ezarritako eta aplikatutako esleipen-irizpideenak.

d) Foru lege honetako xedapenak urratuz egindako kontratu-aldaketak, hasierako kontratuan aurreikusita egon ala ez, lizitazio-xede izan beharko zutelakoan. Kasu horretan, hasierako kontratuaren lizitazioan onartutako pertsonek bakarrik izanen dute erreklamatzeko legitimazio aktiboa.

Errekurtso hori jartzeak inpugnatutako egintza automatikoki etetea ekarriko du, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak aurkeztutako erreklamazioari buruzko erabakia hartu arte.

-Berraztertzeko errekurtsoa, egintza administratiboa eman duen Udal-organoaren aurrean, jakinarazi edo, hala badagokio, errekurritutako egintza argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Balozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 38. orrialdea, guztira 44

-Gorako errekurtsoa Administrazio Auzitegien aurrean, errekurritutako egintza jakinarazi edo argitaratu ondorengo hilabeteko epean.

-Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, errekurritutako egintza jakinarazi edo argitaratu ondorengo bi hilabeteko epean.

24. DATUEN BABESA

Pertsona edo enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioan ageri diren datu pertsonalak Leitzako Udalaren ardurapeko fitxategi batean sartuko dira, eta kontratazio-espedientea kudeatu eta jarraitzeko erabiliko dira. Aurreikusitako datu-lagapenak legeak zehaztutakoak dira (Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea, apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean, Kontratu Publikoei buruzkoan, adierazitakoaren arabera, eta erakundearen Webgunean, abenduaren 9ko 19/2013 Legean, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoan, adierazitakoaren arabera). Datu pertsonalen titularrek euren datu pertsonaletara sarbidea izateko eskubidea baliatu ahal izanen dute, baita zuzentzeko, oker daudela uste badute, edo ezabatzeko, jada beharrezkoak ez direnean ere. Halaber, tratamendua mugatzeko eskubidea baliatu ahal izanen dute legez aurreikusitako kasuetan. Hori guztia Udalarengana jota egin daiteke, non baliatzeko ereduak emanen baitzaizkie. Halaber, erreklamazioa aurkezteko eskubidea dute Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren (agpd.es) aurrean, tratamendua indarreko araudira egokitzen ez dela uste badute.

25. KONFIDENTZIALTASUNA

Kontratistak konfidentzialtasuna errespetatu beharko du, kontratua gauzatzeko aukera izan duen informazioari dagokionez. Betebehar horrek bost urteko epean iraunen du, informazio horren ezagutza izatetik kontatzen hasita.

Enpresaburuek konfidentzialtzat izendatu duten informazioa ezin izanen da zabaldu. Horretarako, lizitatzaileek erantzukizunpeko adierazpenean adierazi beharko dute zein dokumentazio proposatzen duten konfidentzialtzat. Konfidentzialtasun-adierazpena ezin izanen da proposamen osora zabaldu. Hala eginez gero, kontratazio-organoak, arrazoituta, sekretu tekniko edo komertzialei eragiten ez dien dokumentazioa zehaztuko du.

I. ERANSKINA

Irailaren 18ko Leitzako udaleko alkatearen 348/2026 ebazpenaren bitartez onartuta

Balliozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 39. orrialdea, guztira 44

Leitzako Udala

LEITZAKO UDAL LIBURUTEGI BERRIAREN I. FASEKO ERAIKUNTZA-OBREN KONTRATUA.

LIZITATZAILEA EDO LIZITATZAILEAK IDENTIFIKATZEKO ETA JAKINARAZPENETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOAREN EREDUA.

Jaun/Andre …….. NAN/IFZ …….. duena, jakinarazpen ondorioetarako helbidea …….. duena, PK ……., herria ……., telefonoa ……., bere izenean edo (ezabatu ez dagokiona) …….. sozietatearen izenean eta ordezkaritzan, IFK ……..

AZALTZEN DU:

Bitarteko telematikoen bidezko jakinarazpenetarako helbide elektronikoa, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioen kasuan, honako hau dela: ……..

Kontratazioa arautzen duen Baldintza-agiria ezagututa, hari eta aurkeztutako eskaintzari zorrotz jarraituz burutzeko konpromisoa hartzen duela, eta horretarako honako fitxategi digital hauek eransten dituela:

-1. ZK. FITXATEGI DIGITALA: “Dokumentazio administratiboa”.

-2. ZK. FITXATEGI DIGITALA: “Formulen bidez zenbatu ezin daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”.

-3. ZK. FITXATEGI DIGITALA: “Formulen bidez zenbatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”.

ESKATZEN DU:

Leitzako udal liburutegi berriaren I. faseko eraikuntza-obren kontratazio-lehiaketan onartua izatea, eta horretarako dokumentazio egokia eransten du.

Egintza honetan bertan, lehiaketa hau arautzen duten oinarriak eta baldintzak ezagutzen eta onartzen dituela adierazten du.

……(e)n, 2026ko……..(a)ren……..(e)an.

II. ERANSKINA

Irailaren 18ko Leitzako udaleko alkatearen 348/2026 ebazpenaren bitartez onartuta

Balozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 40. orrialdea, guztira 44

Leitzako Udala

LEITZAKO UDAL LIBURUTEGI BERRIAREN I. FASEKO ERAIKUNTZA-OBREN KONTRATUA.

KONTRATATZEKO ESKATUTAKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA.

Jaun/Andre …….. NAN/IFZ …….. duena, jakinarazpen ondorioetarako helbidea …….. duena, PK ……., herria ……., telefonoa ……., bere izenean edo (ezabatu ez dagokiona) …….. sozietatearen izenean eta ordezkaritzan, IFK ……..

Bere erantzukizunpean adierazten du:

- Kontratatzeko baldintzak betetzen dituela / ordezkatzen duen erakundeak betetzen dituela (adierazi dagokiona), eta apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen, Kontratu Publikoei buruzkoaren, 22tik 26ra bitarteko artikuluetan zerrendatutako kontratatzeko debekuetako batean ere sartuta ez dagoela.

- Esleipen-proposamena bere alde erortzen bada, baldintza-agiri honetan eskatutako dokumentuen edukitza eta baliozkotasuna egiaztatzeko konpromisoa hartzen duela, Kontratazio Mahaiaren jakinarazpena jasotzen duenetik gehienez zazpi eguneko epean.

- Kontratua sinatu baino lehen, kontratazioa arautzen duen Administrazio Klausula Berezien Agirian ezarritakoaren arabera eskatutako dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen duela.

- Bere xedeak edo jarduerak kontratuaren xedearekin zuzeneko lotura duela eta kontratua behar bezala gauzatzeko elementu pertsonal eta material nahikoak dituela.

- Zerga-obligazioak, Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunekoak eta laneko arriskuen prebentziokoak, indarreko lege-xedapenek ezarritakoak, egunean dituela.

- Leitzako Udalarekiko obligazioen ordainketan egunean dagoela.

- Enpresa: (Markatu dagokion puntua)

  Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ordainketan egunean dago eta ez da zerga horren matrikulan baja eman.

  Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ordainketatik salbuetsita dago, aplikagarri den araudiaren arabera.

- Enpresa: (Markatu dagokion puntua)

  Nafarroako Ogasunaz bestelako Zerga Administrazioekiko zerga-obligazioetan egunean dago, lizitatzailea zergadun den horietan.

  Ez du zerga-aitorpenak aurkezteko obligaziorik.

Irailaren 18ko Leitzako udaleko alkatearen 348/2026 ebazpenaren bitartez onartuta

Baliozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 41. orrialdea, guztira 44

- Enpresa: (Markatu dagokion puntua)

  Nafarroako Ogasunarekiko zerga-obligazioetan egunean dago.

  Ez du Ogasun horretan inolako zerga-kontzeptutan aitorpenak aurkezteko obligaziorik.

- Enpresa: (Markatu dagokion puntua)

  Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan egunean dago.

  Ez du Gizarte Segurantzan izena emateko obligaziorik.

- Enpresak enplegatzen ditu: (Markatu dagokion puntua)

  50 langile baino gutxiago.

  50 langile edo gehiago, eta (markatu dagokion puntua):

  Gutxienez langileen % 2 ezinduak izateko obligazioa betetzen du, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginean ezarritakoa.

  Apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan aurreikusitako neurri alternatiboak betetzen ditu, desgaitasuna duten pertsonen aldeko erreserba-kuotaren betetze alternatiboa salbuespenez arautzen duena.

- Indarreko lege-xedapenek ezarritako laneko segurtasun eta osasuneko eta laneko arriskuen prebentzioko obligazioetan egunean dagoela.

- Enpresa Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikziopean jartzen dela, gorabehera guztietarako, dagokion atzerriko forua uzten duelarik, atzerriko enpresen kasuan.

- Enpresa lizitatzailea EEE erregistroan (Eraikuntza Sektoreko Enpresen Erregistroa) izena emanda dagoela.

- Baldintza-agiri honetan eskatutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, teknikoa eta profesionala betetzen duela.

- Konfidentzialtzat adierazten duen dokumentazioa honako hau dela: ……

Informazio hau zehatza eta egiazkoa da, eta adierazpen faltsu baten ondorio larriak ezagututa eman da.

……..(e)n, 2026ko ……..(a)ren…….(e)an.

III. ERANSKINA

Irailaren 18ko Leitzako udaleko alkatearen 348/2026 ebazpenaren bitartez onartuta

Balioztatze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 42. orrialdea, guztira 44

Leitzako Udala

LEITZAKO UDAL LIBURUTEGI BERRIAREN I. FASEKO ERAIKUNTZA-OBREN KONTRATUA.

FORMULEN BIDEZ ZENBAGARRI DEN ESKAINTZA-EREDUA.

Jaun/Andre …….. NAN/IFZ …….. duena, jakinarazpen ondorioetarako helbidea …….. duena, PK ……., herria ……., telefonoa ……., bere izenean edo (ezabatu ez dagokiona) …….. sozietatearen izenean eta ordezkaritzan, IFK ……., adierazitako kontratua honako eskaintza honekin bat gauzatzeko konpromisoa hartzen du:

1) **ESKAINTZA EKONOMIKOA: ……** (zenbakiz eta letraz jarri), BEZik gabe, **beherapen-ehunekoa: ……..%** izanik.

2) **Bermealdiaren luzapena**: ……. urte, Leitzako udal liburutegiaren I. faseko obrak gauzatzeko ezarritako gutxieneko 3 urteko epearekiko.

3) **Irizpide soziala**: enpresan indarrean dagoen eta lizitazioaren hasiera-data baino lehen sinatutako **Lan-kontziliazio Plana** erantsi dut: …….BAI ☐ EZ ☐ (*markatu dagokiona*)

4) **Irizpide soziala**: bere erantzukizunpean adierazten du konpromisoa hartzen duela:

   Obraren azken garbiketa Gizarteratzeko Enpresa edo Laneratzeko Enpresa berezietan (CES edo EIS) azpikontratatzeko ……BAI ☐ EZ ☐ (*markatu dagokiona*)

Oharra: Eskaintza ekonomikoan, letraz eta zifraz adierazitako zenbatekoen artean desadostasunik izanez gero, letraz adierazitakoek izanen dute lehentasuna.

……..(e)n, 2026ko ……..(a)ren…….(e)an.

Balozkotze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 43. orrialdea, guztira 44

Leitzako Udala

IV. ERANSKINA

LEITZAKO UDAL LIBURUTEGI BERRIAREN I. FASEKO ERAIKUNTZA-OBREN KONTRATUA.

BATERA PARTE HARTZEKO ADIERAZPEN-EREDUA.

Jaun/Andre …… NAN/IFZ …….. duena, helbidea …….. duena, kalea……., PK ……., herria ……., 1. Enpresaren ordezkaritzan ……., IFK/NAN …….. duena, eta helbidea …….. kalea…….. duena.

Jaun/Andre …… NAN/IFZ …….. duena, helbidea …….. duena, kalea……., PK ……., herria ……., 2. Enpresaren ordezkaritzan ……., IFK/NAN …….. duena, eta helbidea …….. kalea…….. duena.

Jaun/Andre …… NAN/IFZ …….. duena, helbidea …….. duena, kalea……., PK ……., herria ……., 3. Enpresaren ordezkaritzan ……., IFK/NAN …….. duena, eta helbidea …….. kalea…….. duena.

BATERA PARTE HARTZEKO BORONDATEA ADIERAZTEN DUTE "Leitzako udal liburutegi berriaren I. faseko eraikuntza-obrak" kontratatzeko prozeduran, eta euren erantzukizunpean adierazten dute:

-Aurreikusitako **partaidetza-ehunekoa** honako hau da:

1. Enpresa ……..%
2. Enpresa ……..%
3. Enpresa ……..%

-Kontratuak azkendu arte, horietatik eratorritako eskubideak baliatzeko eta obligazioak betetzeko ahalmena duen **ordezkari edo ahaldun** gisa izendatzen dute:

Jaun/Andre …… NAN/IFZ …….. duena, eta helbidea …….. kalea……., PK ……., herria ……..

……..(e)n, 2026ko ……..(a)ren…….(e)an.

Irailaren 18ko Leitzako udaleko alkatearen 348/2026 ebazpenaren bitartez onartuta

Balioztatze Kod.: 3RLDZJL6GJ6K4N4G47L9SYPJG
Egiaztapena: https://leitza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 44. orrialdea, guztira 44